


Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 30. zenb. 1996ko abendua. 100 pzta.



*60 urte gerra zibilak
astindu gintuela*



Elkarrizketa

Juanjo Gabiñak
hiru liburu
berri kaleratu
ditu, horietako
bat euskaraz




*Presoen aldeko
ekimen ugari*

FOTOTEKAK utzitako argazkia




TRAFIKO HAUNDIRIK EZ

Garai batean ez zen Ignacio Zuloaga enparantzaren inguruan aparkamendu arazorik izaten. Hotel Zumayaren aurretik ez autorik, ez furgonetarik, noizean behin idiak tiratako karroren bat besterik ez zen igarotzen. Gaur egun ordea, autoa bankuraino bertaraino sartu nahi izaten dugu eta ibilgailu mordoa pilatzen da Erribera kalean eta argazkiko toki horretan.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora:

 **kutxa** fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz lagunduriko aldirkaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea

ZUMAIAKO

GAZTE

BATZORDEA

Ian taldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

GEG, Natur Taldea, Argazki

Elkartea, Joxe Etxabe, Eulali,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Dani Carballo,

Amaia Benito, Jon Manzisoro,

Karmelo Arroiabe,

Josu eta Arantxa, Asier eta Fran,

Javier Carballo, Ainhoa Iturbe,

Mattin, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako

esanen eta iritzien

erantzukizunik.

Erreportaia
Karlos
Aperribai eta
gerra zibileko
kontuak
...20 or.



Izerdi patsetan
Zumaiarren
sailkapena
Behobian
....24. or.



Ze berri?
Itsasoak
barran
txikizioak
eragin ditu
.... 9 or.

Misiolariak eta armak

Arratzuko kazetari ezagunari duela gutxi irakurri diot euskaldunok misiolariak eta armak esportatzen ditugula batik-bat. Ruanda eta Zaire aldean ez dira ez faltako euskal labela duten armak, ezta misiolariak ere. Rilkek behin gizon bakoitzari bere heriotza emateko eskatu zion Jainkoari. *Lehen Munduari* jainkoarena egitea asko gustatzen zaigunez, Ruandako populazioak nola hil behar duen erabakitzea otu zaigu oraingoan. Itun Zaharreko *Manaren* pasadizoa errepikatuz, janaria zerutik bidaltzea okurritu zaigu. Ze onak garen! Ez daitezela gosez hil beltz gizarajoak! Eta guztientzat iristen ez bada, lasai, pistola batzuk bidaliko dizkiegu eta. Garrantzitsuen gosez ez hiltzea da, noski.



Gorka Zabaleta

Bitartean gure misiolariak galdutako ametsengatik borrokatzen, arma bakarra euskara dutela. Euskara, bai. Bertako gobernuak komunikazioei ezarritako kontrolari ihes egiteko, gure misiolariak euskara erabiltzen dute euren arteko irati komunikazioetarako. Abantaila hori badu behintzat gure hizkuntzak, ze arraio. Seguru nago hizkuntzaz baliatzen diren Santa Kruz berri hauetako bat baino gehiago Euskal Herrian egindako bala batekin joan dela beste mundura. Ez da hori beraiei dagokien heriotza. Sentitzen diat, Rilke.



PREMAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

Zumaian ezberdina izango al da?

Hau izan da Zumaia Bizirik taldeko partaideok azken asteotan egindako kanpainaren leloa. Mezu honekin zera lortu nahi izan dugu, Zumaia kirol portuaren proiektuaren inguruan esan eta egiten ari diren ekintzak logikoak izan daitezkeen ala ez jendeak ikusi ahal izatea.

Ez dugu iritzi partzialetan erori nahi izan, eta objetiboak izatearren konparaketaren bideari ekin diogu. Horretarako Zumaia kirol portuaren ideiarenekin bultzatzaileek izan dituzten jarrera ezberdinak azaldu eta gaur egun gure inguruan dauden beste honelako eraikuntza batzuekin esperientzi ekonomiko eta sozialak jaso ditugu. Honako hauek izan dira erabilitako adibideak, baina hauek bezala beste hainbat kasu aipa genitzakeela kontuan hartuta:

EAJ-PNVren kirol portuekiko politika

Donostia: ekonomikoki bidera ezina delako uko egiten dio Monpaseko proiektuari.

Zumaia: Errentagarritasuna, kostu errealak eta sortuko duen enplegua ezagutzen ez den proiektu bati, baldintzarik gabeko laguntza eskaintzen dio.

Saint Quay Portrieux-ko kirol portua (Britainia)

-Hasiera batean 1.000 amarre merkaturatzeko asmoa zuten, 800-1.000 lanpostu eskainiz.

-7 urte geroago enplegu eskaintza 500 postutara jeitsi zuten.

-Gaur egun 400 amarre besterik ez dira saldu. Lanpostuak urriak dira eta ez dute informazio zehatzik ematen berrietaz.

UGT eta kirol portuak

Pasaia: Onartzen dute kirol portuek ez dutela sortzen ez aberastasunik ezta lanposturik ere.



Zumaia: Lanposturik sortuko ez duen eta diru publikoa alferrik galduko duen proiektu elitista bat bultzatzen dute.

Hendaiako kirol portua

1991-92: Eskari handia zegoela argudiatuz 700 amarreko kirol portua eraiki zen.

1994: 3.224.900 liberatako galera (77 milioi pezeta inguru) sortzen du kirol portuak. Udala portua finantzatzen duen enpresa mistoaren partaide da, eta galerak estaltzeko udal tasak igotzen ditu: talde garraioak, kirol zerbitzuak...

Zumaia: Udalak portuaren finantzaketan parte hartzen du hemen ere, eta orain arte Eusko Jaurlaritzarekin batera dirua jarri duten bakarrak dira. Galerak sortzen badira, denon artean ordaindu beharko al ditugu hemen ere?

Gipuzkoako «Costas» zerbitzua eta kirol portuak

Donostia: Monpaseko proiektuaren kontra agertzen da, Zurriolako hondartzan eta jabego publikoko gune batean izango lukeen eraginagatik.

Zumaia: Kirol portuak itsasoko eta lurreko jabego publiko zatia suntsituko luke eta «Costas» zerbitzua ez da oposatzen.

Puerto Sherry-ko kirol portua (Cadizko badia)

1982: 30.000 milioi pezetako inbertsioa, 5.000 amarre eta 12.000 lanpostu agintzen dituzte. Eraikuntza honek aztarnategi arkeologiko garrantzitsuak eta zenbait hondartza

galtzea suposatzen zuen. Enpresak dirurik ez eta portua tapadera gisa erabili zuen espekulazio urbanistiko handi bat estaltzeko.

1994: enpresak 11.000 milioiko zorrarekin, urtean 1.500 milioiko galera eta 40 postu bakarrik mantenduz, porrot ekonomikoa aurkezten du.

Kirol portua eta enbarkazio tradizionalak (motorak)

Getaria, Plentzia, Ondarru: kirol kaiak eraiki zituzten eta prezio merketan enbarkazio guztiak bertan kokatzera behartu zituzten.

Urte batzutar: Kaiaren gestioa enpresa pribatuen eskutan utzi ondoren, prezioak izugarri garestitzen dira, enbarkazio tradizionalari ere ordainduaraziz. Adibidez, Plentzian 17,8 m²ko untzi batek urtean 130.000 pezeta; Getarian txibitako motora batek urtean 195.612 pezeta.

Honelako proiektuen inguruan izan litekeena, ekar lezakeena, eragingo omen duena eta antzeko iritziak ugari eta erraztasun handiz erabiltzen dira, proiektuaren bultzatzaileen ahotan gehienbat. Ezin daiteke ahaztu honelako makro-eraikuntzen bultzatzaileen artean beti dagoela interes pertsonalak dituen bat edo beste, eta hauen iritziek ez dutela inpartzialtasunik izaten.

Hori dela eta, zumaiar guztiak gonbidatu nahi ditugu iritzi pertsonala osatzera, hitzetaz fidatu edota promesekin geratu gabe, proiektu hau eraikitzeak Zumaia bezalako herri bati ekarriko liokeen aldaketa izugarria ikusiz. Honetarako inguruan ditugun kirol kaiak adibidetzat hartu, datu errealetan oinarritu eta izpiritu kritikoa izan.

Kirol portua norentzat? Zertarako? ■

Habana
auto

Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 86 00 70
Zumaia

ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Europa garbiketara eta tintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670

BELARDENDA
SIWA

Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Kirola Zumaian



FELIX AIZPURA

Eskubaloian dago ekipo earra kapitain dutelarik Txoatxu zaharra korrikan ez daukagu pelotoi baldarra Behobia aldean denok tirri-tarra Alvaro izan gendun lehen zumaiarra

Piraguiak dabilta maila gorenian eta pelotariak onenen parian txirindulari danak Igorren atzian errekorra genduen Kontxako badian oraindik gurea da parte zaharrian

Kirolari guztiek hamaika helburu gogor saiatu hortan belarri ta buru guztiok horrelaxe segitzen badugu lau urteren barruan seguru-seguru olinpiadak Zumaian izango ditugu



LEIRE ARANO

haur horiek gero euskaldun mantenduko direnik? Ez, ezinezkoa da, gaztelaniaren eragina nagusitzen baita esparru guztietan: aisialdian (kirolak...), kulturaren (zinemara joaten direnean, adibidez), komunikabideetan (TB kate bakarria dugu euskaraz), lan munduan, unibertsitatean (ia ezinezkoa da ikasketak euskara abar luze bat.

Zoritxarrez guistikoak euskajarraitzen du. kulturaren berresnormalkuntza desio behin, badugu zer hizkuntzarekiko aldatzetik has

hitz egitetik, alegia); eta bestetik, gizarte arlo guztietan euskarak bere lekua izan dezan instituzioei hizkuntza politikan eta Euskal Herri osoan aurrerapausoak eman ditzan eskatu, hots, plangintza orokor baten zehaztapena. Orain arte egindakoa ez da nahikoa; irakaskuntzan jarri izan da indarririk handiena, baina gainontzeko esparruetan lan egiten hasteko ordua da. Gipuzkoa ez da Zumaia edo bere ingurua (eskualde euskaldunena) eta Euskal Herria ez da Gipuzkoa (euskaldun gehien dituen lurraldea). Iparraldean euskara gainbehera doa, Nafarroan nekez eusten zaio euskaldun kopuruari eta EAEn euskaldun kopuruak azken urteetan gora egin badu ere moteltze bat antzeman da.

Beraz, badugu zer egina, badugu zer eskatua. Oraintxe dugu aukera aparta. Nola? Bat egin dezagun Euskal Kulturaren Batzarrekoek (EKBkoek) proposatutako mezu eta mobilizazioekin. EKB euskara eta euskal kulturaren berreskurapen eta normalkuntzaren alorrean lanean diharduten erakunde sozialen konfederakundea da: AEK, Egunkaria, EHE, UEU, Argia eta abarrek osatua. Kanean duzu informazioa, tabernetan, gure kaletako hormetan... EMAN EUSKARARI BEREA eta joan gaitezen denok abenduaren 14an Bilbon egingo den manifestaziora EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PLANGINTZA OROKORRA eskatzera.

Betikoa? Betiko?

Azken Baleiken Josuk adierazitako ideia baten ildotik natorkizue: Lagun artean zebilela gaztelaniaz barra-barra dela ohartu omen zen eta hemendik bere lehen frustrazioa. Zurekin bat nator!

Zumaiarron artean gehienok euskara jakin badakigu, baina erabili? Zumaian umeen % 100ak D erduan ikasten du gaur egun, hau da, euskara hutsean. Hala ere inork ziurtatu al dezake eskolak euskalduntzen dituen



egoera soziolin-raren kontra Euskara eta euskal kurapena eta dugunok behinik egina. Alde batetik ditugun ohiturak gintezke (euskaraz

egiteko) eta bestetik, gizarte arlo guztietan euskarak bere lekua izan dezan instituzioei hizkuntza politikan eta Euskal Herri osoan aurrerapausoak eman ditzan eskatu, hots, plangintza orokor baten zehaztapena. Orain arte egindakoa ez da nahikoa; irakaskuntzan jarri izan da indarririk handiena, baina gainontzeko esparruetan lan egiten hasteko ordua da. Gipuzkoa ez da Zumaia edo bere ingurua (eskualde euskaldunena) eta Euskal Herria ez da Gipuzkoa (euskaldun gehien dituen lurraldea). Iparraldean euskara gainbehera doa, Nafarroan nekez eusten zaio euskaldun kopuruari eta EAEn euskaldun kopuruak azken urteetan gora egin badu ere moteltze bat antzeman da.

Beraz, badugu zer egina, badugu zer eskatua. Oraintxe dugu aukera aparta. Nola? Bat egin dezagun Euskal Kulturaren Batzarrekoek (EKBkoek) proposatutako mezu eta mobilizazioekin. EKB euskara eta euskal kulturaren berreskurapen eta normalkuntzaren alorrean lanean diharduten erakunde sozialen konfederakundea da: AEK, Egunkaria, EHE, UEU, Argia eta abarrek osatua. Kanean duzu informazioa, tabernetan, gure kaletako hormetan... EMAN EUSKARARI BEREA eta joan gaitezen denok abenduaren 14an Bilbon egingo den manifestaziora EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PLANGINTZA OROKORRA eskatzera.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412



Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g

Tel: 148082

78 Posta kutxa

Fax: 148081

20740 IRAETA - ZESTOA

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407



**TRENGELTOKING:
KIROL ARRISKUTSUA**

Ez al duzu inoiz praktikatu edota gutxienez entzun? Trengeltoking Zumaian --eta Zumaian bakarrik-- gero eta jende gehiagok praktikatzen dugun kirola da. Kirol arriskutsua, arriskutsurik bada.

Hitz gutxitan azalduko dizkizut arauak, gerta liteke eta egunen batean zeuk ere nahi gabe praktikatzea.

Trengeltoking egiteko beharrezkoak dira:

- Osasun fisiko ezin hobea: erreflexuak primerakoak; beti erne autobusak noiz sartuko gurgipila zuloan.

- Txorkatilak bereziki gogorak: ez duzu nahiko lehenengo zuloan sartu eta bihurritzea, ezta?

- Aldatzeko arropa: lanera zoazela, ikastera, edo medikuarengana Donostiara; lotan ibili; plast; adios! zikindu zaizu arropa.


- Autobusak: handi-handiak. Baina autoak ere ez dira txarrak.

- 100-150 metroko tartea, zuloz josia, seinalerik gabea. Paris-Dakar pista, alegia (Itsas kiroldigitik estaziora doana mundiala da).

Kirol honen funtsa zera da: estaziora minik hartu gabe eta garbirik ailegatzea. Bidean arrisku asko pasa beharko dituzu: iluntasuna; behar bezalako espaloirik ez egotea; zuloak (ojo urez beteta daudenean, ez da hondorik ikusten eta) eta putzuak; ziztu bizian ibiltzen diren auto eta autobusak. Estaziora iristen denak trena hartu ahal izango du.

Kontuz, ordea, azken arriskuarekin: ia helburua lortutakoan "Nilenengo" izeneko bidegurutzea

GUTUNAK



Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, baina kontuan izan orrialde batekoa baino laburragoa izatea komeni dela laburtu edo baztertu beharrik izan ez dezagun. Ezizenarekin sinatu daitezke gutunak, baina beti ere egilearen identitatea zein den jakinaren gainean egon beharko dugu. Gutuna Forondara bidali edota Erribera kaleko buzoian utz dezakezu.

igaro beharko duzu eta: lau bidek bat egiten dute; ez dago ez semafororik; ez "ceda"-rik; ez stopik; ez zebrabiderik. Lehenengo iristen denak dauka lehentasuna; oinezkoa ez bazara, jakina.

Harritzekoa da, baina kirol honek ez du udalaren dirusaririk jasotzen. Are gehiago: zenbat eta diru gehiago jaso, orduan eta zailagoa da kirol hau praktikatzea. Eta gure agintariek ez dute praktikatzen: nahiago dute kotxez ibiltzea; patxadazaleak! Bestela konponduko zuketena, seguru.

Oraindik ez dute harmailik jarri, baina ez litzateke gaizki egongo, jubilatuek kirol honekin goza dezaten! Barre eta entretenimendua, seguru eta merkea.

Hau guztia azaldu ondoren, ziur al zaude inoiz ez duzula trengeltoking praktikatu?

Argiago hitz egin behar al dut? Zatoz ikustera edozein egunetan --euria ari badu, hobe-- estazio bidera.

**Zaletu bat
NAN 15.983.963**

**MARI KALEKO
BERRITZE LANAK**



Beti keja izan behar ez dela eta, kritika positiboa egin nahi dut Mari kalean burutzen ari diren berritze lanen inguruan eta bide batez Zumaia Udala zoriondu gaiaren inguruan izan duen sentsibilitate bereziagatik.

Nire ustez, asmatu egin dute lehen zeuden adokinak mantentzerako orduan, baina are gehiago zeuden losak errespetatzerakoan, horietxek baitira Mari kaleari eta txirrixo (San Pedro) kaleari berezitasuna eta tipikotasuna ematen dioten gauzak.

Erabaki horrekin eleizaren ingurua oso era egokian mantentzen da, ezinbesteko berritze lanak egin ondoren. Zorionak ba Udalari! eta ea hortan jarraitzen duen.

Ismael Manterola Ispizua

ZALLA
Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387


Amertze
Foto
Erribera kalea 6
Tel / faxa: 861707

EGUZKI
PUB
KOKTEL BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

Udalak EUDIMAn sartzea erabaki du

Preso politiko zumaiarren eskubideak bermatzeko udal batzorde bat eratuko da

Lehengo hilaren 28an Ludaletxean izan zen plenoan hiru mozio aurkeztu ziren: EUDIMAn sartzearen aldekoa, presoentzat udal batzorde eratzea eskatzen zuena eta OTANi buruz HBk aurkeztu zuena. Lehenbiziko biak onartu ziren, baina PSOEko zinegotziak bertan egon gabe.

Tentsio pixka bat egon zen plenoaren hasieran. Izan ere, PSOEkoek beren kexa agertu zuten, hiru mozioak euskara hutsean jaso zituztela eta ez zutela aztertzeko modurik izan adieraziz; gainera, mozio guztiak atzeratzea eskatzen zuten, itzulpena eskutan izan arte. Beste alderdiek, kexatzeko bi egun izan zituztela esan zieten eta aurrera egitea erabaki zuten. Orduan, PSOEko bi zinegotziak mahaitik altxa eta alde egin zuten.

Lehen mozioan, *Gu Ez Goazek* aurkeztuta, Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitatean sartzea proposatzen zen, elkarrekin intsumisioaren bidez uztartzen diren helburuak babesteko, bultzatzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartuz. Intsumisioaren aurkako zigorrak betearazten ez da lagunduko eta arazo hau konpontzeko bere esku dauden baliabide guztiak erabiltzeko konpromisoa eskatzen zitzaion Udalari.

EA eta HBk aldeko botoa eman zioten mozio honi; PNVk oinarrian ados egon arren, zalantzak zituela eta hasiera



Erabaki garrantzitsuak hartu ziren azaroaren 28ko plenoan.

batean aurkako botoa ematekotan zen; HBko ordezkariak abstentzioaren aukera ere hor zeukatela gogorarazi zien, eta PNVk azkenean bide hori aukeratu zuen, abstenitzea, alegia. Mozioa onartu zen, beraz..

Herri Batasunak OTANi buruz aurkeztu zuen mozioa atzera bota zen, EAren abstentzioa eta PNVren aurkako botoekin. EAk mozio alternatibo bat proposatu zuen, baina hau ere ez zen onartu. ■

Udal batzordea presoentzat

Udalak euskal presoengatik inguruko beste mozio bat onartu zenetik hilabete batzuk igaro ondoren, presoengatik egoera ez da batere hobetu eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela aipatu zen hilaren 28ko bigarren mozioan.

Udalari 3 gauza eskatzen zitzaizkion: batetik, presoengatik eskubideak bermatu ahal izateko gestioak egingo dituen udal batzordea bat osatzea; bestetik, batzorde honek ekimen ezberdinak burutzea: presoak bisitatu, kartzeletako arduradunekin bilerak egin, eta zumaiarrei presoengatik egoeraren berri ematea; azkenik, bileren balorazio publikoa egitea eta bilerak gauzatuko ez balira, salatzea.

Mozioa EAJ, EA eta HBkoen botoekin onartu zen, eta batzorde horren barnean alkatea eta alderdi guztietako ordezkari bana egoteaz gain, SENIDEAK elkartekoak ere bertan izango direla aipatu zen.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

ERTZ
INFORMATIKA
Urria-Abendua
WINDOWS, WORD
EXCEL
Mendaro Mariñela 3, TEL./Fax. 14 33 95

**ORDENAGAILUAK
MULTIMEDIA**

Sei lagun astebeteko gose greban



Sei lagunek gose greba bat burutu zuten azaroaren 23tik 29ra bitartean, presoak Euskal Herrira ekartzea exijituz. Aste horretan zehar, Senideak taldeak antolatuta, bestelako ekitaldi batzuk ere izan ziren: hitzaldia, manifestazioa, kotxe karabana, enkartelada zaratatsua, eta abar. Aipagarria da, era berean, bi autobus bete zirela Bilbon izandako manifestazio nazionalera joateko.

Euskararen aldeko lana, saritua

Julian Florez eta Arantxa Tapia (Astigarrakoa) senar-emazteak saritu ditu Injinadoreen Elkargoak, beren lanetan euskararen alde egin duten guztiagatik. Biak irakasle daude Donostiako Perito eta Injinerutza eskoletan.



laburrak

Autobusak geltokira

Aurreko zenbakian Getairako bidea negargarri zegoela jarri genuen, eta orain okerrago dago, lur-jausi baten ondorioz ezin baita bertatik pasa. Hau dela eta, Eusko Trenbideak konpainiak autobus batzuk jarri ditu autobusen paradatik jendea tren geltokira eramateko. Autobusak trenak baino 10 minutu lehenago irtengo dira, eta geltokitik itzultzeko autobusak ere egongo dira.

Joseba Ossa, berriz ere saritua



Joseba Ossa izan da, duela bi urte bezala, Julene Azpeitia ipuin lehiaketan zumaia onenaren saria irabazi duena.

Lehen bi sariak irabazi dituztenak ere oso ezagunak dira: **Xabier Mendiguren Bereziartu** eta **Hasier Etxeberria**.

Sari banaketa urtarrilean izango da, hilaren 10ean seguruena. Zorionik beroenak hirurei ere.



ZUMAI A



AUTO-ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeltian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

125 urteurreneko azken ekitaldiak



Azken egunean San Pedro Abesbatzak ere hartu zuen parte.

Azaroko azken astean bete zen karmeldarrak Zumaiara etorri zireneko urteurren borobil hori. Hau ospatzeko azken ekitaldiak ere orduantxe burutu ziren: hitzaldiak, haurren festa, dantza eta kantu saioak, eta abar. Azken egunean, meza nagusiaren ondoren plaka bat jarri zen ikastetxearen kanpoaldean, Setien gotzaia eta alkatea bertan zirela.

Itsasoak barran aberi galantak eragin ditu



Duela hilabete batzuk zati zaharreko harriak "mugitu" bazituen, oraingoan barra berriaren txanda izan da. Itsasoko denborale batek, barra muturreko petrila hondotik mugitu eta bide aldera eramán du. Ez zaigu iruditzen azken aldia izango denik, gainera, hau bezain ekaitz gogorrak eta okerragoak berriz ere etorriko baitira.

laburrak

Ostatua eta kaleen izenak

Estazioa eta Aita Mari poligonoaren ondoan, Alai auzategitik Ayra Durex bitartean izugarrizko mugimendua dago, eraikuntzei dagokienez. Ikastetxea eta etxea berriak egiten ari dira eta jakin ahal izan dugunez hauetako etxe baten lehen solairuan ostatu bat kokatuko da, 14 gela ingurukoa. Honekin Zumaiak orain duen hutsuneetako bat beteko da, neurri txiki batean bada ere.



Bestalde, Udaleko azken plenoan etxe hauekin sortuko diren **kaleen izenak** aukeratu ziren. Horretarako gure kostaldeko lurmuturren izenak hartu ziren: **IZUSTARRI, MARIANTON, AITZURI, AIZKORRI** eta **ARRANAITZ**. Hauei **IZAGA** gehitu behar zaie, eta hau etxeak egiten ari diren inguru horretako lehengo izen zahar bat delako hautatu zuten.

*Jesuskoa
Faletxea*



Afona 86 17 39 • C/ikita Zumaiara

Paki 
Belardenda

OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIARA

“Euskaltasuna eta modernitatea uztartu nahi izan ditut”

Jon Sudupe irakasle eta idazle azkoitiarrak bigarren aldiz irabazi du Irun Hiria sari garrantzitsua, saiakera arloan orain ere. *“Muniberen ametsa. Euskaltasuna eta modernitatea”* izenburua du bere azken lanak eta 1.000.000 pezetako saria jasoko du saiakera honen ordainetan.

Lan honen bidez euskaltasuna eta modernitatea lotu nahi izan ditu Jonek, eta zer nolako harremanak izan dituzten aztertu ere bai. Horretarako Xabier Munibe (1729-1785) Peñafloidako kondearen bizitza eta lanean oinarritu da. Jonen iritziz *“Munibe eta bere adiskideek iraultza kultural bat egin zuten; zientzia eta ideia berriak sartu zituzten, baina euskara baztertu gabe”*.

Baina ideia ilustratu hauek ez zuten arrakastarik izan Euskal Herrian eta aurkako mugimendu bat egon zen. Tradizioa, euskara, foruak eta abar batetik eta modernitatearekin lotutako jarrera guztiak bestetik (askatasun indibidualak, demokrazia liberala...) kontrajarri zituzten.


Gai hau zergatik aukeratu duen galdetu diogunean *“lehen ere aztertu nuen “Modernitatearen alde” liburuan, baina hura askoz lan teoriko-*

agoa zen eta honetan arazo hori Euskal Herrian euskaltasunean nola txertatzen zen erakutsi nahi izan dut” esan digu.

**“Euskararen alde egiteko
produzitu egin behar da
eta gai modernoak
euskaraz idatzi”**

Era berean nazionalismo euskalduna eta espainola nola aldentzen joan diren azaldu nahi izan du. *“Munibek biak defenditzen zituen eta nik ere bai, hark bezala bat espainol eta euskaldun batera izan daitekeela iruditzen baitzait; ez dut kontradikziorik ikusten horretan”*.

Honekin Jonek irabazten duen laugarren saria da eta aitortu digunez *“sari hauek animatu egiten zaituzte,*



Jon Herri Eskolan aritzen da irakasle lanetan.

jendeak kontuan hartzen zaitu eta lana argitaratzeko aukera eskaintzen dute”. Gainera liburutan ere diru dexente joaten zaionez horretarako eta ordenagailu berria erosteko ederki etorriko zaio milioi hori.

Gero eta saiakera gutxiago idazten da hemen, eta Jonen ustez euskararen alde lan egiteko benetan egin behar dena produzitzea da, horrelako gai modernoak ere euskaraz lantzea. Hurrena egin beharreko lana ere buruan bueltan omen dabilki, gainera: lan honetan azken aldera azaletik aztertzen duen komunitarismoa sakonago jorratu nahi luke. Beste sari bat eskuratzeko balio diezaiola. ■

EGOKI

ERLOJU DENDA

**E. Gurrutxaga plaza, 6
ZUMAIA**

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157


Maiaur
olastokia

Nork ez du ezagutzen dagoeneko gizon hau? Telebistan aurpegi ezaguna, prentsan hainbat artikulu idatzitakoa, Juanjo Gabiñak aurten hiru liburu kaleratu ditu. Bi eleberri, "Utopía en el siglo XXI" eta "Su xahutzailea", eta "El conspirador del futuro" izenburua

Juanjo Gabiña

daraman artikulu bilduma bat. Prospektiker erakundeko zuzendari azken urtetan, zeregin hau alde batera utzi eta beste bide batzuk jorratzeko asmoa du. Honetaz eta beste makina bat kontuz aritu gara solasaldi luze batean.

"Euskaldunak abertzaleak gara beste irtenbiderik ez dugulako"



Bere jakinduria ezagutzera emateko garaia heldu dela esan digu Juanjok.

ZERGATIK KALERATU DITUZU ORAIN HIRU LIBURU HAUEK?

Bi arrazoi nagusigatik. Batetik, Prospektiker jadanik ez da lehen zena, orain talde bat dago lanean eta gainera hemendik 5 urtera enpresa hau uztea pentsatzen dut. Bestetik, 47 urte ditut eta neure aldetik zerbait emateko garaia iritsi dela uste dut, Euskal Herriari diodan errespetuagatik.

«UTOPIA EN EL SIGLO XXI» ELEBERRIAN, SUFRIMENDURIK GABE, POZTASUNEZKO ETORKIZUNA PLANTEATZEN DUZU. POSIBLE AL DA HAU?

Bai. Guk egun esku artean dugun teknologiarekin, mundu zoriontsu bat lortzeko aukera haundiak ditugu. Gertatzen dena da, gero eta aberatsagoak gara, eta aberastasun hori gaizki banatzen dela. Zergatik? Batik-bat ekonomia ez dagoelako demokratizatuta. Garbi daukat demokratizazio hori eman ezean, ez dagoela etorkizunik. Horrela jarraituz gero, marjinauak areagotuz joango dira, eta seguru nago honen ondorioz iraultza bat etorriko dela herri garatuen baretik. Nik uste Euskal

MAITE

ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



ITSASKI

supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia



DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefon: 862051

SUKALDEKO
ALTZARIAK

20750 ZUMAINA
(Gipuzkoa)



“Euskal Herriaren independentzia beharrezkoa da bere etorkizuna ziurtatzeko”.

“Gure gizarteak iparra galdu du eta errudunak agintariak dira”

Herrian bertan ere iraultza hori emango dela.

Aro berri baten hasieran gaude, eta aro zaharreko arauak mantentzen ditugun bitartean, krisian jarraituko dugu. Gaue egungo langabezia, lanordu gehiegi sartzeagatik dago batez ere.

Euskal Herrian beste gizarte mota bat asmatu behar dugu, eta hau posible litzateke gure buruaren jabe bagina. Euskal Herriak bere burujabetasuna eta independentzia lortzen ez badu, bere etorkizuna kolokan egongo da.

ETORKIZUN OPARO BAT LORTZEKO HEZKUNTZA ETA EZAGUTZA ABERASTEA OINARRIZKOAK DIRA ZURETZAT, EZTA?

Bai, baina elkartasuna eta pobrezia ere bai. Bizi garen mundu honetan lehiakortasun bortitz batean gaude murgilduta, eta honek ez du zentzurik. Norbait bizkorra bada edo asko ikasitakoa, bulegotan edo kolpe zorrikerik jotzen ez den lanpostuetan

jartzen ditugu; bere gaitasuna erakutsi gabe. Gerora begira etorkizun ezkorra, beltza dugula entzun ohi dugu, baina hau gezurra da. Etorkizun asko daude, eta onak, baldin eta alde z aurretik iraultza bat egiten bada.

Burujabetasuna

«EL CONSPIRADOR DEL FUTURO» LANAK EUSKAL ESPARRURA BEGIRATZEN DU. ZER KONTATZEN DUZU BERTAN?

Amorrua ematen dit ikustek gure gizarteak iparra galdu duela, eta beti bezala errudunak agintariak dira. Euskaldunak gero eta irekiagoak izan, gure nortasuna, kultura... hobeto mantenduko ditugu. Euskaldunak abertzaleak gara beste irtenbiderik ez dugulako, gure nazioa sortu artean; tragedia hori dugulako. Independentzia lortuta bagenu euskaldunak nazionalistak izango ginatke? Ez dut uste. Izan ere, orduan gure zeregin nagusia herri aske bezala beste herriekin elkarlanean aritzea izan

beharko luke. Azken finean, euskal nazionalismoa beste nazionalismoen erantzuna da. Euskaldunok harrotasuna behar dugu, baina ez harrokeriarik, altxor historiko bat baikera.

ELKARRIKETAREN BATEAN ESAN DUZUNEZ, EUSKALDUNAK BESTEEN ALDEAN BEREZIAK GARELA PENTSATZEN DUTEN GUZTIAK KRITIKATZEN DITUZU. ERA BEREAN, SUSTRAI ETA KULTURA PROPIOAK DITUZTEN HERRIAK JOKO DUTELA AURRERA. EZ AL DA KONTRAESANA?

Ez. Euskaldunok beldur haundia dugu. Euskal Herria nolabait harresi haundi bat bihurtu nahi dute. Beste batzuk berriz Euskal Herri folkloriko bat, baserritarrez jantzita... Nik pentsatzen dut gure nortasuna sakondu nahi badugu, kanpotik ikusten ditugun gauza onak hartu behar ditugula, eta guk geuk ere zerbait eskeini. Beraz, folklorismo eta harresi hori ezarri nahia kritikatzten dut. Hori bai, edonondik jota ere, garbi daukat burujabetasuna eta independentzia eskuratu behar ditugula, beste inoren menpe egon gabe. Ni seguru nago askatasuna lortuko dugula, eta espero dut ikustea gainera. Euskal Herriaren ondare nagusienak babestu behar ditugu, hau da, euskara eta gaztedia.

ekin
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telef. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1ª - Telef. 14 34 74
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-
euskara-gaztelera-katalana -
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

«SU XAHUTZAILEA» ZURE AZKEN ELEBERRIA EUSKARAZ DAGO IDATZIA. EUSKARAZ IDAZTEN DUZUN LEHEN ALDIA DA, EZTA?

Bai, asko kostatu zait gainera. Euskara zenbat eta konplexuagoa, ilunagoa, borobilagoa izan, orduan eta dotoreagoa konsideratzen da. Hau espainolen eta frantsesen tratamendua da, baina ez euskaldunena. Gauza bera esateko hitz asko ditugu, baina beste hitz askorentzat euskaraz ez dago baliokiderik. Joskera aldetik ere landu beharra dago. Euskara aberats bat izan nahi badugu, estilo asko izan behar ditugu; ez da inolaz ere mugatu behar.

ZUMAIAREN ETORKIZUNERAKO, 2005. URTERAKO HAIN ZUZEN ERE, PLANGINTZA BAT EGIN ZENUTEN. ZER NOLAKO TRAZA HARTZEN DIOZU HERRIARI URTE HOIETAN?

Telekomunikabide aldetik azpiegitura bat egitea beharrezkoa da. Beste eginkizun batzuk daude orain arte behintzat bete ez direnak. Harritu nauena kirol portuak sortarazi duen eztabaida izan da. Bi gizarte mota ditugu geroari begiraturaz: informazioarena bat eta aisialdiarena bestea. Kirol portua pribatua balitz kontra nengoke, baina publikoa bada ez daukat dudarik beharrezkoa dela.

Gainera, eraiki nahi den tokian lokatz ugari dago, kutsatuta dagoen lokatza. Kontua da Zumaiak badia mantentzea behar duela, eta honi erabilpena ematea. Arazoa ez da kirol portua, baizik eta nola eratzen den, norentzat, ze preziotan eta gero zumaiarrok zer egiten dugun hori posible egiteko.

Guztiak dituzte beren arazoak, aurka eta alde daudenak: denak ados

“Ez daukat dudarik kirol portua, publikoa bada, beharrezkoa dela”

egteko zer egin behar den da kontua. Nik uste dut gainera errentagarria izango dela, kirol portuaren mantenimendua ez baita haundiegia izango. Gazteek gainera aukera hau esplotatu behar dute enpresa mailan. Nire iritziz kirol portua munizipala izan daiteke, transparentea izango dena. Turismoa bultzatzeko asko lagunduko du.

NOLA BALORATZEN DUZU KIROL PORTUAREN ONDORIOZ HERRITARREN ARTEAN SORTU DEN ZATIKETA?

Gehiengoan tirania, gutxiengoan diktadura. Ni prest nago kirol portuaren alde eta kontrakoan artean zubi lanak egiteko, konponbide batera heltzeko. Horretarako kirol portuaren inguruko puntu guztiak mahai gainean jarri, elkarrekin aztertu eta erabakiak har genitzake.

ZUMAIA TURISTIKOA AL DA HERRI HONEN ETORKIZUNA?

Ez. Baza bat da, baina ez bakarra. Hori bai, turismoa erakartzeko bitarteko eta zerbitzu asko sortu behar ditugu herrian. Gaur egun euskal kulturarekin lotuak dauden aktibitate baerriak badaude, eta hauek esplotatu behar dira. Gainera Zumaiak sortarazten duena kanpoan inbertitu beharrean, herrian



Gabiñaren ustez turismoak baza bat izan behar du gerora begira.

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etxezarreta, 19 20750 ZUMAIA
Telefonoa: 862342

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

JEMAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375



Teknologia berriak maila guztietan integratzea beharrezkotzat jotzen du.

bertan inbertitzea lortu behar da. Azken batean, zumaiarrek nahi dutena iza behar du Zumaiak, baina oztoporik jarri gabe. Aurrera begiratu behar dugu, lehengo egiturak eta sistemak atzean utzi gaurkoa esplotatuz.

ZEINTZUK DIRA ZURE IRITZIZ, ZUMAIK GEROAN ERAIKI BEHARREKO ZUTABE NAGUSIKAK «POZTASUNEZKO MUNDU» HORI LORTZEKO.

Telekomunikazioen egitura bat lortzea, ingurune naturalak aprobetxatzea, ezagutza eta batez ere nazioarte mailan ondo «nabegatzea». Oso garrantzitsua litzateke 16 urteko

“Etorkizun asko daude, eta onak, baldin eta aurretik iraultza egiten bada”

gazte batek lau hizkuntza menperatzea. Hau erronka bat da, baina beharrezkoa; zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, zeure jatorrizko hizkuntza gehiago maitatzen duzu. Bide batez, gaztelaniak duen boterea gutxitzea lortuko genuke. Itsas izpiritua berreskuratzea behar dugu zumaiarrok.

BESTALDE, GOROSTIAGAKO LURRAK EROSI DITU UDALAK. HERRIKO INDUSTRIARENTZAT OSO GARRANTZITSUA DA HAU, EZTA?


Ez dakit ba ondo egin ote duten. Ez da berdina industrialdea betiko sisteman jarri (industri pilaketa) edo beste poligono inteligenteeago bat ezartzea. Enpresek *sustantzia grisa* behar dute, beste era bateko enpresak egin beharko genituzke, zerbitzuak eskeiniz, komertzioekin, hotelak, ekologistagoa... aktibitatea sortuko luke gainera. Inguru hau sortuz gero, orduan bai, orduan enpresa onak erakarriko genituzke; baina horretarako pentsatu egin behar zer nolako industrialdea nahi dugun, ez orain bospasei urte bezelakoak. Honetarako jakina, mentalidade aldaketa bat eman behar da industri mailan. ■

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458

JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853

KOSTA GAS



GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etkezaretza, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala


GURE TXOKOA TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

SINFUL

■ PEKATARIAK !!!....



■PEKATUAN MURGILDUAK ZAUPETENOI ... EZ ZARETE KONTURATZEN ZEVON....



■ ... ARJMAK ANULEZIA MENPERATUBARIK DUELA ... SATANAS ...BAI....




■... PEKATARIEN ERREGE DENAK ... IKUSI EGITEN GAITU ... BETI GURE ...



... SATANAS ... LEKU GUZTIETAN ...

... DAUKAGU ... TELEBISTA ... ZINE ... ME


■ DIOETAN . ERRUKI HITZ HAU EI MUZIN EGITEN DION HARI ...



■ ... SALBA ITZAZUE ZEVON ARIMAK ... HAU AMAIERA DA AGH!.....AAAAA!



■ ... SHOCK BATEN ONDORIOZ...AAAAA...EZ DAGO EZER EGITERIK...BAI PREDIKATZAILEA...



60 urteko kontu tristeak oroitzuz

Espainian gerra zibila 1936ko uztailearen 18an hasi zen; Francoren armadak Afrikatik eta Mola generalarenak Nafarroatik, indartsu ekin zioten ordura arte agintean zegoen gobernu errepublikarra suntsitzeari. Zumaia irailaren 21ean hartu zuten, eta gauza triste askoak gertatu ziren orduan, baina ez da gure asmoa hautsak harrotzen hastea, garai hartako zenbait gertaerei buruzko zertzelada batzuk eskeintzea baizik.



Soldaduek inguru hauetan ez zuten oztopo haundirik aurkitu.

Zumaian, eta Gipuzkoan, ez zen Bizkaian bezainbesteko oztoporik izan nazionalei aurre egiteko, baina beste tokitan bezala, oso une latz eta larriak igarotzea egokitu zen.

Euskal Herri mailan *Euzko Gudarostea* antolatzen hasi ziren alderdi abertzaleak (ANV, EAJ). Beste alderdi eta sindikatuek ere (PSOE, PCE, CNT, JSE, UGT) erresistentzia indarrak prestatzeari ekin zioten.

Gudariak Azpeiti aldera joaten hasi ziren, entrenatzera. Laster baino lehen frontean sartu eta kopuruz eta armaz askoz hornituagoa zegoen etsaiari aurre egitea egokitu zitzairen. Zumaia inguruan ez zen ia enfrentamendurik egon, hurbilenekoak Itziar eta Elgoibar aldekoak izan ziren. Beraz, gure gudariak Tolosa ingurura

pasa ziren, baina atzera egin behar izan zuten, Arrasate aldera, errepublikarren gunera.

Zubi Txikia dinamitaz lehertu zutenean jendeak "sartu dituk" pentsatu zuten

Bien bitartean faxistak Zumaiara inguratu ahala, jendea herritik ihes egiten hasi zen. Karlista batzuk preso hartu ziren, badaezpada ere, eta Ubillosen gorde zituzten. Batzokiko buru zenak gero preso hauentzat etxe abertzaletan lekuak bilatzeko agindua eman zuten, ondoren etorriko ziren CNT-koek inor fusilatu ez zezaten.

Bata bestearen atzetik, etxetik ia ezer hartzeko aukerarik gabe,

jende asko itsasoz alde egiten hasi zen, motoretan sartu eta Lekeitio eta Ondarru aldera batez ere. Inor ez zegoen batera lasai; karlistak CNT-koak ote zebiltzan eta besteak faxistak sartuko ote ziren beldurrez. Francok Maroko aldeko jendea erabili zuen eta guztien ahotan ibili zen, kontuz ibiltzeko "moroekin", zirenak eta ez zirenak egiten zituztela eta (emakumeak bortxatu...).

Gau batean danbateko izugarria entzun zen herri osoan. "Sartu dituk" pentsatu zuten jendeak, baina ez zen hori izan. CNT-koek zubi txikia lehertu zuten, azpian dinamita jarrita. Horrela nazionalei bidea itxi edota oztopatu nahi izan zuten. Zumaiar bat ere tartean omen zen ekintza honetan, eta txibatazo baten ondoren fusilatu egin zuten gero.



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA




Foto *Mertze*

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707


Hotel Amaya, Zumaia hartu baino lehen Tolosa eta Pasaia aldetik etorritako jendea ebakuatzeko erabili zena, inguruetakozaurituentzat ospitale gisa hartu zuten faxistek. Orain Batzokia dagoen eraikuntza hori "Junta de Guerra" izendatu zuten, eta bertan erabaki oso garrantzak hartu ziren. Esate baterako zerrenda batzuk egin zituzten, eta hauen arabera hainbat neskari ilea "zuritu" zioten, zerora moztu, eta kalean pasatuarazi eta Amayako komunak garbitzera ere behartu zituzten.

300 lagun inguru bialdu zituzten herritik, gehienak emakumeak beren seme-alabekin

Abertzaleen familiak zigortu nahian, "acto de desagravio" izeneko bat ere antolatu zen. Horretarako, Arritokietako Ama Amaiako plazara jeitsi eta herrian geratzen ziren abertzaleak erreketez (karlisten militar taldea) edota falangistaz jantziarazi zituzten, umildu nahian edo. Falangisten trajea hain ezaguna ez zenez, zumaiar askok nahiago izan zuten hau janztea, erreketena baino. Orduan alkate zenak bere hitzaldian nazionalistak "hain gaiztoak" ez zirela esan omen zuten, berarekin ondo portatu zirela behintzat. Izugarria armatu omen zen: faxistak "Cara al sol" eta "bibaespanaka", jende guztia mutur-joka... Eta jendeak nahasmena ospa egiteko aprobetxatu zuten.

Hurrengo urtean, 1937ko otsailaren 13an hain zuzen ere,

Tropa frankisten sarrera galarazteko bota zuten zubi txikia.



gertaera krudel bezain penagarria izan zen Zumaian. Zerrenda batzuetan oinarrituz, 300 lagun inguru kanporatu zituzten herritik, ia denak emakumeak beren seme-alabekin. Frontean zeuden gudariak harrapatu ezin zituztenez, hauen familiak zigortzea erabaki zuten. Eguraldi txarra zegoen, euria ari zuen; denak, ume eta guzti, kamioi batzuetara igoarazi eta Bizkai aldera eramane zituzten, "Que se va-

yan" eta antzeko oihu iraingarrien artean. Ezinikusia eta elkarrekiko amorrua nagusi zen garai hartan.

Batzuk Bilbo aldera inguratu ziren, eta beste batzuek Frantzi aldera joateko modua aurkitu zuten, itsasuntziz. Urteak igaro ondoren, bizirik zeudenak behintzat, berriz ere etxerako bidea hartu zuten. Gerraren atzetik gerraostea iritsi zen, ordea, eta honekin gosea, diru premia eta beste mila arazo etxe askotan.

Alde egindakoan utzitako etxeak ere ez ziren lehen bezala ageri; hauetan desagertutako gauza baliotsu asko pasa omen ziren karlisten ondasunen artera.

Euskal Herrian, 1937ko uda bitartean izan ziren borroka bortitzenak, baina gerraren eragina ez zen hilabete batzuetako kontua izan. Igarotako une latzak, sufrimenduak, adiskide eta senitartekoen hutsuneak arrasto handiak utzi zituzten. Zauriak ez dira erabat itxi, 60 urte igaro arren oroitzapen mingarriak ez baitira burutik hain erraz ezkututzen. ■



Otsailaren 14ko "Euzkadi" egunkariak kanporatuen zerrenda ekarri zuen.

SOLOZABAL AUTOESKOLA

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Loitz

*Eskola eta bulegorako materiala
*Enkoadernazioak
*Fax publikoa
*Aldizkari eta opariak

Erribera 4
Tel/Fax: 143422

KARLOS

APERRIBAI: "Iruitzen zitakan neuk geatuko nittula danak"

Jendeak izugarri sufritu zuen gerra zela eta ez zela, eta duela 60 urte gertatukoa oso gogoan dute hura bizi izan zutenak, gauza asko ahaztuzeko hobeak diren arren. Gutxienez testigantza bat bildu nahi izan dugu, eta 76 urteko gizon jator honek gaztetan bizitza egokitu zitzaizkionak kontatu dizkigu.

Hamasei urte besterik ez zituen Karlosek, Zumaia hartu bezperan, "Virgen del Carmen" untzian sartu eta Ondarru aldera joan zenean. Hogei lagun inguru joan ziren bertan, eta emakume bat ere bai. "Barku bat huan honduan zeona, baina hainbeste tekniko huan gure artian (arotzak, mekanikuak...) eta lortu genian aileatzia".

Familikoak etorri zitzaizkion Xarrondora "Etorri zeate, herritik bialdu egiten gatzibek eta" esanez

Xumai omen zuten patroï eta kostata baino sartu omen ziren portuan, eta harategi batean gorde zituzten. "Etxe horretan gabela, tropak bazetoztela eta, aitak eta bestiak barku batian hanka in zuen, ezertako astiik pe". Bera bakar-bakarrik geratu zen Ondarrun eta hilabetera, kalean zebilela zumaiar batekin egin zuen topo eta hura komandante baten txoferra zenez, Zumaiara ekarri zuen.

Orduan Xarrondo baserrian sartu zen morroi, baina egun batean familikoak joan zitzaizkion "Etorri

zeate, herritik bialdu iten gatzibek eta" esanez. Kamioi zahar batean sartuta, "frentia Ondarru eta Lekeitio tartian ziuana eta hara eraman zitien, euritan; egualdi txar askua huan".

Orduan, edaderik ez zeukan mendira joateko eta "cinturón de hierro" famatua egiten aritu zen, familikoak (ama, arrebak...) Ean utzita. "Han jardun nian 'nido de ametralladoras' eta alanbradak iten, iruitzen zitakan neuk geatuko nittula danak, Bilbo hartu zan arte. Goikoetxeak saldu in gitxuan, plano ta guzti beste alde pasa huan eta fortifikazixo dana inutil geatu huan".

Areetara jeitsi zenerako familia Frantzira joana zen. "Orduan handik Portugaletea barku batian pasa nitxuan, puente kolganteko transbordadoria bolatu zien eta sokak eta jarrita zibetian jendia pasatzeko". Basurtora pasa zen Karlos segidan eta handik Santoñara, trenaz. Bilbotik Santoñara 81 km daude eta bi egun t'erdi behar izan omen zituzten bide hori egiten, "tuneletan ere denbora asko ta, abioitatikan



Karlosek ere untzi batean alde egin behar izan zuen Zumaiatik.

ametrailatu iten ziguen, nola kaldera makinak zian, txispa eta zikina botatzen zuen eta gabian ere nabarmenak zian". Santoñan ez zuten tirorik egin, Gobierno Vascok hala erabakita. Han 10-15.000 gudari elkartu ziren, "hor zibetian fortifikazixoakuak, San Andres, Padura... gehientsunak".

Han esan zieten untzi batzuk etorriko zirela, denak Frantzira eraman eta Irundik sartzeko, baina gezurra zen. Danak preso hartu eta aurrena Ondarrura eraman zuten, untzi batek eskoltatuta; gero Zumaiara eta hemen bertan egin zioten epaiketa: "Yereginian hasi nitxuan lanian eta 'un día de haber a la semana' eman bihar izaten nian".

Bi hilabetetan herria izan zuen kartzelatzat eta egunero joan behar izaten zuen komandantzira firmatzera, harik eta soldaduska denbora etorri zitzaion arte. Sei urte egin behar izan zituen soldadu, baina hura ere amaitu zen, zorionez. ■

ERROTA
ERROTA
 OPIL - OKINDEGIA
 Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
 ZUMAIA

AXIER KIROLAK
 Ortega y Gasset, 2
 ZUMAIA
 Telefonoa: 862206

ARGIA
 Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
 ZUMAIA



Gazte Batzordea berpiztu da!

Gogoratuko duzue nola aurreko zenbakian, hil ala biziko bilera baterako deialdia egin genizuen. Eta hala, bilera egin zen, bilera nahiko jendetsua. Bertan, Gazte Batzordearen hastapenetan partaide izan zirenak, gaur egunean biltzen direnak, eta gogotsu agertu zen gazte talde bat bildu ziren.

Bileraren haseran, hain deialdi *dramatikoa* egin izanaren arrazoia azaldu zen, Gazte Batzordea indar gutxiarekin, eta herriko gazteen babesik gabe sentitzen zela alegia. Gero Gazte Batzordearen sortzaildeetako batzuk mintzatu ziren, beren esperientziak kontatuz, eta jarraitzeko animoak emanez.

Bileran bildu zen jende kopurua eta hauen lanerako gogoia ikusita, Gazte Batzordeak aurrera segitu behar duela erabaki zen. eta horrela, bilera hark jarraipen bat izango zuela ziurtatzeko, eta jendearen artean halako konfiantza bat sortu asmoz, epe laburrera GBa aurrera eramaten saiatuko den hainbat ekintza antolatzen hasteari ekin zitzaion.

PROPOSAMENAK

Horrela, proposatu ziren ideiak kontutan hartuta, lau gai ezberdin jorratzen hasi da GB.

Alde batetik, igande arratsaldetan gazteak entrete-



GOAZEN DENOK LARRAULERA!

nimendu bat behar duela aipatu zen, **IGANDE ARRATSALDEAK** aspergarriak izaten direla. Hori hala dela ikusita, igande arratsaldetan ekintza ezberdinak antolatuko dituen talde bat bildu zen. Hasiera batean ipuin kontalariren bat ekartzea proposatu zen.

Bigarren talde bat, **MENDIRAKO IRTEERAK** antolatzeaz arduratuko da. Lehenengo irteera egin zen, Zumaia

eta Deba arteko bidea eginez, eta hurrengoak ere hemen inguruan izango dira.

Hirugarren talde batek **LARRAULERAKO** bigarren **IRTEERA** antolatuko du. Iaz zubia aprobetxatu zen, baina aurten astirik ez dagoela ikusita abenduaren 26tik 30era bitartean joatea izan daiteke aukeretako bat.

Azkenik, laugarren talde bat gabonetan gure **OLENTZERO** suspertzen saiatuko da. Zerbait berezia egin nahi da gazteen artean ohitura jator hau berrindartzeko.

Lau lantalde hauek beren aldetik bilduko dira ekintzak lotzen joateko, eta gero, aldian behin gazte guztiak batera bilduko dira, ekintzak nola doazen ikusteko eta batzordeak hemendik aurrera zer egin behar duen eztabaidatzeko. ■

“Pletorexia” Lekeitioko lehiaketara



Baleiketxou!-rako Pello Azkuek egindako bideoa, Lekeitioko euskal zinema eta bideo bileran botako dute hilaren 6an. Bideo honetan aldizkaria nola egiten dugun ezin hobeto isladatzen da.

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA

Telefona: 860201



Sexualitatea ala *sex*ualitateak !

Ezinbestekoa da sexualitatea ondo bizitzeko gutxienez galdera bati erantzuna ematea, ZER NAHI DUT?

Eta honen ondoren nahi adina galdera planteatu, bakoitzat bere erantzunak aurkituz. Erraztasun handiz saltzen dizkigute, laranja zuku goxo baten modura zenbait modelo, informazio, postura eta orgasmo simultaneo... Hauek gainera badute balorazio eta moralaren etiketa.

Bakoitzarentzat balioarriak diren gauzak eskuratzea ez da baztertu behar. Baina zer gertatzen zaigu "produktu" eta "modeloak" gure errespasioaren gidari bihurtzen direnean? Beste formula magiko baten bila abiatzen gara. Herrialde honetan sorginak bizi izan dira. Hala ere erantzunen pozima edo edabe magikorik ez dute utzi.

Beraz goazen denok gure buruari galderak egitera eta ahal ditugun erantzunak guregan aurkitzera. Bestalde beti ere gure sexualitatea besteen eskuetan uzteko aukera hor dugu. Baina zenbateraino da balioarria?

Abentura gustokoa baduzue hartu tartetxo bat eta deskubritu nahi duzun hori. Animo eta aurrera!




"NERE SEXUALITATETIK ABIATUTA"

- a.- Zoriontsu izango nintzateke
- b.- Ezagutzen ditudan pertsonak dira.
- c.- Inoiz ez dut hain gaizki pasatzen gertatzen denean bezala.
- d.- Daukadan neska/mutil-lagunak nahiko nuke.
 - e.- Nere akats nagusia.....da.
 - f.- Une honetan gehien behar dudana.....da.
 - g.- Ezagutzen ditudan pertsona gehienak ez dakite nik.....
 - h.- Badakit tontakeria bat dela, baina-ri beldurra diot.
 - i.- modukoa izatea nahiko nuke.
 - j.- Etorkizunari begira nagoenean
 - k.- Nere harremanak besteekiko.....dira.
 - m.-Pertsona mailan hobetu beharko nukeena da.
 - n.- Nere bizitza sexuarekin gehien gustatzen zaidana da.
 - n.- Inoiz egitea edo izatea gustatuko ez litzaidakena da.
 - o.- Besteri naizela erakustea gustatzen zait.

Posible da abenturarekin hemen ez bukatzea, norberaren sexualitateak ez baitu denbora eta matematikaz gehiegi ulertzen. ■

Ainhoa Iturbe



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440



GILANO

LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91

ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxes. 860169

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

Alberdi

GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155



ITXASO
URRUZUNO

Puenting. Aerobic-a edozein momentutan egin dezakezun kirola da, baina puenting egiteko aukera ez daukazu beti.

Zer egingo zenuke lehenago, puenting edo aerobic?



IÑIGO
MARTIN

Aerobic ez det sekula egin baina puenting bai eta ez dakit... Ez batak eta ez besteak ez nau erakartzen.



NEREA
EGAÑA

Aerobic errezago; handikan behera eroritzen beldur gehiago ematen duelako.



AMAIA
ESNAL

Aerobic. Puenting egiteak beldurra ematen duelako eta aerobic egin detelako.



MARI JOSE
BARINAGA

Aerobic, puenting ez behintzat! Puenting egiteak beldurra ematen dit. Nik usten det peligrsua dala.



JOXE JOAKIN
INSAUSTI

Ez bata eta ez bestia, ez zaizkit gustatzen.



MIKEL
MURILLO

Puenting. Aerobic-a baino erakargarriagoa iruditzen zaidalako, baina hala ere aerobicen neska asko ikusten dira...

ARRAIN ETA MARISKOAK

7

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

MARES

7 MARES IZOZTUAK

Larrañaga

Juanjo

HARATEGIA URDATEGIA

BASADI-AUSTATEGUIA, 4-A ZUMTZA TEL. 662061

ENTER INFORMATIKA

BALTASAR DE ETXABE z/g ZUMAIA

☎: 86.11.75

☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA SERBITZU TEKNIKOA HARDWARE ETA SOFTWARE INFORMATIKAKO KURTSOAK

Zumaiarrak Behobian



Jaime Osa, oso ondo.

1 (32) Jesus Mari Alvaro	1:08:05
2 (47) Mariano Sanchez	1:09:08
3 (219) Juan Manuel Lopez	1:14:36
4 (285) Joakin Parejo	1:15:56
5 (294) Jaime Osa	1:16:10
6 (388) Gracian Galarraga	1:17:32
7 (411) Erlantz Esteibar	1:17:50
8 (415) Jon Gonzalez	1:17:51
9 (625) Jesus M. Iburguren	1:19:55
10 (662) Peio Santamaria	1:20:11
11 (725) Julian Igual	1:20:49
12 (974) Xabier Ureta	1:22:41
13 (1032) Juan Ignacio Alkorta	1:23:16
14 (1047) Musin Azkriek	1:23:26
15 (1148) Jose Luis Arroiabe	1:24:12
16 (1233) Josu Egaña	1:24:45
17 (1237) Felipe Aguirre	1:24:46
18 (1402) Jon Sasiain	1:25:56
19 (1501) Tomas Urbietta	1:26:31
20 (1503) Felix Aizpurua	1:26:32
21 (1628) Carlos Moreno	1:27:17
22 (1732) Antonio Fernandez	1:27:43
23 (1772) Xabier Elizalde	1:27:57
24 (1851) Andoni Amilibia	1:28:16
25 (2147) Julian Florez	1:29:56
26 (2341) Manu Olaizola	1:30:52
27 (2811) Imanol Azkue	1:33:16
28 (3291) Jose Luis Aizpurua	1:35:22
29 (3446) Oier Aizpurua	1:35:59

30 (3509) Iñaki Iburguren	1:36:13
31 (3546) Jose Andres Esnal	1:36:24
32 (3598) Jabier Odriozola	1:36:39
33 (3668) Mikel Sarasua	1:36:52
34 (4137) Teodoro Jimenez	1:38:48
35 (4194) Fernando Arano	1:39:03
36 (4327) Rafa Tamayo	1:39:39
37 (4328) Iñaki Aizpurua	1:39:39
38 (4331) Bernard Caporossi	1:39:40
39 (4522) Enrike Mendizabal	1:40:25
40 (4875) Igor Mendizabal	1:41:44
41 (4912) Pedro Etxabe	1:41:51
42 (4997) Agustin Zumeaga	1:42:21
43 (5116) Miguel Aramendi	1:42:51
44 (5444) Jose Mari Albizu	1:44:12
45 (5445) Iñaki Ostolaza	1:44:13
46 (5978) Aitor Manzisidor	1:46:38
47 (6048) Ricardo Martin	1:46:58
48 (6054) Imanol Cortes	1:46:59
49 (6102) Asier Eizaguirre	1:47:10
50 (6166) Ernesto Grijalba	1:47:32
51 (6234) Jon Alvarez	1:47:49
52 (6415) Jose M. Agirrezabala	1:48:42
53 (6436) Sebastian Leiza	1:48:49
54 (7457) Mikel Yeregui	1:54:23
55 (7536) Arantxa Egaña	1:54:55
56 (8386) Jesus M. Uranga	2:02:18
57 (8839) Bittor Olaizola	2:10:40
58 (8982) Ane Miren Azkue	2:17:57



Felix Aizpurua eta Tomas Urbietta, ederki.

izerdi tantak

Ziklo-krosean bikain

Ciclos Beristain taldeko txirindulariak karrera bikainak burutu dituzte orain artean, kadete maila behintzat jokaturako 4 karreretan (Leioa, Usurbil, Urnieta eta Duranan) taldekako sailkapenean lehen postua eskuratu baitute. Honetaz gainera, **Gaizka Gonzalezek** Usurbilgo lasterketa irabazi zuen eta **Iker Ortiz** behin 2. postuan eta beste bitan 3. postuan geratu da. **Oier Egaña** ere, 23 urtez azpiko kategorian, ondo hasi da eta Duranan 5. postuan sartu zen, baina erorketekin zorte txarra izan du denboraldi hasiera honetan.

Gipuzkoako txapelketa Andoainen jokaturako da abenduaren 22an eta Euskadikoa Telleriarten hilaren 29an. Animo mutilak, eta ea berri pozgarriak ekartzen dizkiguzuen.

Gabonetako txapelketak

Urtero bezala, Polikiroldegian futbito, saskibaloia eta ping-pong txapelketak antolatu dira. Izenak lehenbailehen eman behar dira eta polikiroldegian bertan emango dizuete argibide gehiago: inskripzioa nola egin, egutegia, eta abar.

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA

KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAI

Telf: 860569



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAI

Telefona: 861433
Fax: 861067



Lehen fasearen azken partiduak



Oraindik gauza asko gerta daiteke Itzurun aldean.

Plaiaroetako lehen fasea amaitzen ari da eta dagoeneko ari dira talde batzuk nabarmentzen. A MULTZOAN **Axier Kirolak** da jaun ta jabe, partidu denak irabazi baititu; B MULTZOAN, berriz, borroka handiagoa dago, **Azkue & Eguzki** aurreratu bada ere **Gesem** eta **Zumeak** partidu bat gutxiago baitute. C MULTZOAN, azkenik, **Intxausti** dago aurrean, baina **Kabi tabernakoak** gain-gainean ditu.

Gabonen ondoren hasiko da 2. fasea eta gogoratu multzo bakoitzetik bi talde bakarrik sailkatuko direla LIGArako. Gainontzeko 11 taldeak bi multzotan banatuko dira eta KOPA izango dute jokoan.

EMAITZAK

A multzoa	Jok	I	B	G	AIG	AUG	PT
Axier kirolak	3	3	0	0	19	1	9
Landeta karrozeria	4	3	0	1	13	8	9
Leize taberna	3	2	0	1	13	6	6
Urberu sagardotegia	4	1	0	3	9	15	3
Ekin Buitraker	4	1	0	3	9	18	3
Inpernupe	4	1	0	3	6	21	3
B multzoa							
Azkue & Eguzki	4	2	1	1	18	10	7
Gesem	3	2	0	1	11	7	6
Zumea taberna	3	2	0	1	6	5	6
Basusta Erretegia	4	2	0	2	14	12	6
Ganbara	3	1	0	2	4	10	3
Ajax Pino	3	0	1	2	5	14	1
C multzoa							
Intxausti harategia	3	2	1	0	11	8	7
Kabi - Genelek	3	2	0	1	11	7	6
Mendi - Ondo elek.	2	1	0	1	8	6	3
Basarri restaurante	3	1	0	2	9	13	3
Ipurbeltz - Gaztañaga	3	0	1	2	6	11	1

- Landeta kar. 2 - Ekin Buitraker 0
- Intxausti har. 5 - Basarri 4
- Azkue & Eguzki 3 - Gesem 4
- Ipurbeltz 3 - Mendi Ondo 6
- Ajax Pino 2 - Basusta 7
- Axier K. 5 - Urberu 0
- Leize 6 - Inpernupe 1
- Ganbara 2 - Zumea 0
- Basarri 3- Mendi Ondo 2
- Intxausti har. 4 - Kabi Genelek 2
- Azkue & Eguzki 7 - Ganbara 1
- Kabi Genelek 3 - Ipurbeltz 1
- Landeta Kar. 4 - Inpernupe 5
- Ekin Buitraker 5 - Urberu sag. 3
- Ajax Pino 1 - Gesem 5
- Landeta Kar. 5 - Urberu Sag. 2
- Axier Kirolak 7 - Inpernupe 0
- Leize 6 - Ekin Buitraker 3
- Basusta 1 - Zumea 3
- Azkue & Eguzki 6 - Basusta 3

HURRENGO PARTIDUAK

Abenduaren 8, 14, 15, 22 eta 29an

goofy
HAUR JANTZIAK
Amaiako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zubaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

CORO PRIETO
Esteticista
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g
Telefonoa: 861322

IPUIN KONTAKETA

Asteartea

10

Haurren
liburutegian

Arratsaldeko
6etan



Itziar Zubizarretaren eskutik
"ITSASOKO IPUINAK".

LUDOTEKA

Gabonetako egitaraua honako hau izango da:

* Bi larunbatetan, hilaren 14 eta 21ean,
Gabonetako **ESKULAN TAILERRAK**. 10etatik
13tara eta 15etatik 18tara, 12-14 urte bitarte-koentzat.

* Hilaren 23an, astelehena, **GABONETAKO
FESTA**.

TXOTXONGILO antzerki taldearen
"ITSASMINEZ" lana

Igandea **22** eguerdiko 12etan Aita Mari aretoan.

Abenduak
17 eta 18

Ubillosen

arratsaldeko 6etan

MUSIKA

ESKOLAKO

ikasleen saioa



Abenduak 14
larunbata

Goizeko

10,30etan

INTERNET

zerbitzuaren

aurkezpena eta frogak
(bazkideentzat)

LOGOTIPO LEHIAKETA

Zumaiaren 650.

urteurrenaren ikurra
aukeratzeko lehiaketa bat
antolatu da. Edozein
zumaiarrek har dezake
parte eta diseinuarekin
batera erabilpen proiektutxo
bat ere aurkeztu beharko da.
Sari bakarra dago, 70.000
pezetako, eta lanak
Forondan aurkeztu behar
dira, abenduaren 13a baino
lehen.

Xabier Montoiaren kontzertua

Abenduak 13 ostirala
Oxford-en
gaueko 11etan

HITZALDIA

"LANGAI: egungo lan aukerak"

Osteguna 19 Forondan
Arratsaldeko 19,30etan

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

Itzurun ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea 2

Tel: 861565
143446

ZUMAIA



Erribera kalea, 2

Telefonoa: 861125

ZUMAIA

AHOLKULARITZA JRUZE ASESORIA

Erribera 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel.: 851485



UROLA TXIRINGITOA

Eguneko menua
Parrila bereziak

Gernika parkea

Tel.: 862656



DIPOSITIBA SAIOA



Hil honen 13an, PATXI SANZeta AITOR ATXEGAREN "Neguko Solstizioa Euskal Herrian" emanaldia egongo da. Ohi bezala Forondan izango da arratsaldeko 7,30etan.

TRIKITIXA

Abenduaren 20an, gaueko 10etan, Aita Mari aretoan, **Euskal Herriko TRIKITIXA Txapelketako** final erdiak izango dira..

GABONAK

LARUNBATA 21

Arratsaldeko 6etan hasita, **KALE GIROA** trikitilarien eskutik

ASTEARTEA 24

Arratsalde osoan zehar, **GABON KORUA**

Arratsaldeko 6,30etan **BELEN** bizidunaren ibilbidea

ASTEAZKENA 25

Eguerdiko 12,30etan Aita Marin, Udal Musika Bandaren **KONTZERTUA**

LARUNBATA 28

ALDAZ GORA fanfarrearen saioa

OSTIRALA 3

PARKE BEREZIA
(11-13,30 eta 15-18,30)

LARUNBATA 4

Beheko plazan arratsaldeko 6,30etan Erregeen morroiek herriko haurren **ESKUTITZAK** jasoko dituzte.

IGANDEA 5

Arratsaldeko 6,30etan hasita **ERREGEAK KALEAN ZEHAR**



BERTSOLARIAK



Hilak 27, ostirala, gaueko 10etan, Maria eta Jose ikastetxean, bertsolari gazteen jaialdi berezia, dena gai baten inguruan. Beste zenbaiten artean **JON MAIA** eta **IGOR ELORTZA** izango dira bertan.

SANTO TOMAS EGUNA

Herriko ikastetxean Santo Tomas jaialdia ostiralean, abenduak 20, arratsaldeko 4retan, Beheko plazan: txistorra, trikitilariak...



VIII. Natur Ihardunaldiak

- * Abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra bitartean, profesional zaharreen.
- * **ASTRONOMIA**ri buruzko hurbilpen ikastaroa eta Iruñeko planetariora irteera.



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

Zinea



BELLEZA ROBADA (1996) -118 min

ZUZ.: Bernardo Bertolucci
AKT.: Jeremy Irons
Liv Tyler

Lucy (Liv Tyler), aita ezezaguna eta ama hil berria duen neska gazte bat, Italiara joaten da bere iraganaren bila. Han, Toscanako etxe batean, eta artista talde batez inguratutik, bere bizitzaz zerbait gehiago jakiteaz gain, birjintasuna galtzen saiatzen da...

"Belleza Robada" izan da Bertoluccik Italiara itzuli denetik egin duen lehen filmea. Pelikula "txikia", aurrekontu murriztekoa. Aurreko superproduktzioekin jarraitu beharrean, lan intimista bat egiten saiatu da. Aipatzekoa da horretarako erabili dituen aktoreak: alde batetik Jeremy Irons aktore britainiarra eta aski ezaguna ("Inseparables", "El misterio Von Bulow") eta bestetik batzuen ustez Ava Gardner berria den Liv Tyler gaztea.

60 eta 70eko hamarkadetan "El ultimo tango en Paris" eta "Novecento" pelikulen ondoren aldareetara altxa bazuten, orain ikusi egin beharko da azken lan honekin ea jendea hunkitzen duen, aurreko "El pequeño Buda" aspergarriaren ondoren zailagoa izango baitu. Kritikariak behintzat zatituta daude; batzuentzako zoragarria, besteentzako txorakeria.

Zine kritikak

	EGIN	DV	Egunkaria
Trainspotting Zuz: Danny Boyle	★★	—	★★★★
Belleza Robada Zuz: Bernardo Bertolucci	★★	—	★★
En el nombre del hijo Zuz: Terry George	★★★★	★★★★	★★★★

IRAKURKETARAKO AUKERAK


Hemen duzue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.

Dasta eta goza itzazue ahal duzuen neurrian



Gaztelera

Fernando Schwartz
Zoé Valdés
M. Serrano
Andrés Trepello
Stephen King
Eduardo Mendoza



- El desencuentro
- Te dí la vida entera
- Nosotras que nos queremos tanto
- La malandanza
- Desesperación
- Una comedia ligera

Haurrentzat

- Ilargilapurra *Felipe Juaristi*
- Elurretako gizon nardagarria *R.A. Montgomery*
- Patxiren itsasontzi pirata *Philippe Dupasquier*

Gaztetxoentzat

- Apaiz zaharraren gitarra *Joan Mari Irigoien*
- Ideas de bombero *Andreu Martin*
- Ihesaren ondorioak *Brigitte Logeart*



**inportaturiko erropa
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia

TXOKOA



T
B
E
R
N
A

*Artadi
Auzoa*

86 21 89



AIZPURUA


L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMALA

Salam, Agur Salam, Agur

Horrelakoa da bizitza, egintzazu behar duzuna... eta **NEGU GORRIAK** taldekoek momentua dela ikusita «Agur, Salam» diote. Atzean geratzen dira 7 urtetako gauza onak eta ez hain onak: kontzertuak, bira internazionalak, diskoak, ekitaldiak, Galindorekiko afera eta ezagutzen ez ditugun beste mila detaile.

Euskaraz abesten duten taldeen artean internazionalena dugu, beraiek dioten bezala, kanpoan ate asko ireki dituzte, eta barruan ere bai, Esan Ozenkiren bidez. Egia esan, talde honen musika (Euskal Herrian) erabat berritzailea izan zen hasieran; hitz konprometituak (hamabost milioi pezetako balioa dutenak, batzuk) eta zuzenak (motzenak ere ulertzeko modukoak), hori estetika zorrotz batez apaindurik goi mailako talde bat bilakatu da NG. Hemendik urte batzutura EHko musikaren historia egiten badugu, NG ahantzi ezin dezakegun talde horietako bat izango da: Euskalduna naiz eta harro nago!, Lehenbiziko bala, Borreroak baditu milaka aurpegi, Horrelako da bizitza, egintzazu behar duzuna edota Aizu! bezalako hitzek luzarorako izango dute lekua gazte eta ez hain gazte direnen oroimenean.



Argazkia: Aitor Bayo (SUSA)

NGkoek maletak egitea erabaki dute, oraingoz.

Negu Gorriak, berataz jakin eta uste izan duguna baino askoz gutxiago eta aldi berean askoz gehiago izan da. Uste dut bakoitzari dagokiona eman behar zaiola, eta iruditzen zait EHN jaingo musikalen gisa hartu izan dituztenak pixka bat nahasturik dabiltzala, NGren musika, taldea osatu duten lagunen influentzia musikalaren «collage» bat izan baita, eta gainera denok pertsonak garen heinean noizean behin gure printzipioak ere alde batera utzi behar ditugula aurrera jarraitzeko.

Agurrerako prestatu duten diskoa beraien bizitzako B.S.O. bat da, bertako eta kanpoko musikaz osatua. Hamabost kanta bilduko dira eta tartean BAP!!en «ez dut ezer esan nahi», MACKA Bren «Sex Machine» edota OTIS REEDINGen «Respect» moldaketak izango dira. Beraien proiektu berriak azaltzen diren bitartean, SALAM, AGUR eta ondo ibili.

Rikardo Zengotita

DISKOGRAFIA OROKORRA

- Negu Gorriak* 1990 Oihuka
- Gure Jarrera* 1991 Esan Ozenki
- Borreroak baditu milaka aurpegi* 1993 EO
- Hipokrisiari Stop!* 1994 EO
- Idea Zabaldu* 1995 EO
- Ustelkeria* 1996 EO
- Salam, Agur* 1996 EO
- Hator, Hator* (singlea) 1990 Basati Diskak
- Gora herria* (maxia) 1991
- Bideoa:** *Herrera de la Mancha, Tour 91+1*, NGTV
- Liburua:** *Negu Gorriak Idea Zabaldu Tour* (Garbiñe Ubeda, SUSA)



JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20

ONCE

**JOXE
MANUEL**

Kupoiak tailer, etxe
eta dendetara
eramaten dira.

Tel: 862347-861001





Motxian hi!

Nor: *Ibon Zubizarreta*
Nola: *Txubi*

- ZER DA GARIBALDI BAT?
- GARAI BATIAN ZEOZER, GAUR EGUN GUTXIO.
- ETA ZEIN ZEN GARIBALDI?
- IRAULTZAILE BAT.
- EZ, EZ, EZ...!
- EZETZ JODER!
- GIDATZEKO BAIMENA ATERA BEHARKO DUZU HALAKO BATEAN.
- BALEIKE.
- FESTETAKO TXOSNA FRONTOI TXIKIAN EDO GERNIKA PARKEAN?
- FRONTOIAN.
- ZER IRUDITZEN ZAIZU UDALA EUDIMAN SARTZEA?
- ADAR JOTZE BAT, GEZUR BAT, ETA ABAR.
- LAN EGITEKO EGUNA ALA GAUA?
- GAUA.
- ETA PARRANDARAKO?
- GAU ETA EGUN.
- ZERGATIK ZARA ESTUDIANTES ZALEA?
- DEMENTEZALIA NAIZELAKO.
- ZUMAIAKO SASKIBALOI TALDEAK ZERGATIK EZ DU AURTEN BABESLERIK?
- EZ DUTELAKO MEREZI.
- ZUMEAK BERRIZ PLAIEROTAN BABESTEN ZAITUZTE!
- JOSE OLENTZERO BEZELAKUA DALAKO.
- EZ AL DIZUETE LOTSARIK EMATEN IÑAUTERIETAN ATERATZEN DITUZUEN MOZORROEK?
- EZ.

Kontu-kontari

LEHENGO UDAK

Udan normalean diru arazorik ez genuen izaten "turistei" eskerrak. Eguraldi onei eskerrak herriko hotelak (Amaya, Zumaya, Uranga, Ibarra...) "beraneantez" beteta egoten ziren. Gu mutil "koxkorrok" (neska koxkorrei ez zieten uzten) "Hotel Amaya" aurreko arranplan iregi egiten genuen eta hoteleko "frantsesak" guri begira ikusi orduko "Etxen perras ke sakamos kon la boka" deiadarra egiten genien. Alajaina! Euskaldunak frantsesei espainolez hitz egiten! Frantsesak eskukada bat txanpon bota, gu hondora joan, txanponak eskuan hartu, ahoan sartu eta ur gainean azaltzen ginen ahozabalik txanponak barruan erakusten, eta frantsesak "Ouh la la". Gure artean nahiko "txarri burruka" izaten genuen nork txanpon gehiago atera! baina bi lege jator genituen: 1- Ezin ginen sartu buruz behera txanponak hondoa ikutu arte eta 2- Iregian egon behar genuen alturatik zanbullik egin gabe. Beraz "arnasa" gehiena zeukana txapeldun! Bai, turistei zor diegu udan egunero zinera joatea.

Trabuko (Orrua aldizkaria, 10 zenb.)



CARLIN OFIMARKET

GEHITZEN DOAZEN EROSKETEKIN,
"POCAHONTAS" BIDEO-ZINTA
OPARITZEN DUGU.
ESKOLA-MATERIALA.
FOT. 5 PEZETAN

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAR
-24 orduetan
-Zeure etxean
-Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK



-Enkuadernaketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiala

Basadi 1-1, behea - Tf. 145120

Salerosketak

Bigarren eskuko deshumidifikadore bat erosi nuke. Deitu 860569 telefonora.

Bi anplifikadore salgai, bat gitarrarena 70 w-koa, eta bestea baxuarena 100 w-koa. Deitu 860213 telefonora (Haize)

AGURRAK

Badiuula eta eztiuula, xoltero bakarra okupauta. Aupa Zumaiko xolteruak!!!

La Guipuzcoana: \$\$\$\$\$

JUANLU. TOI BORRA!

Eh neskak!
Xurruting puskatzen ai dala...
kontuz ibili! Aupa Xurruting

Buitrakerko Miss-ak: aurten
"patorrojoa" joateko prest?

OIER Zer moduz zaude? Ea
azkar zuzentzen zaizun hanka
hori. ANIMO.

Hirutan joan beharko duk
"Hirutan Hiru"-n irabazteko.

KLASEAK

Klase partikularrak kurtsoan zehar:
fisika, kimika, matematika,
zientziak... Maila guztiak. Klaseak
euskaraz nahiz gazteleraz.
Harremanetarako deitu hauetako
telefono batera: 861834 (Joxean)
edo 862684 (Imanol)

Salmenta puntuak

JESUSKOA JATETXEA
ERROTA (ERRIBERA)
ERROTA (BASADI)
ERROTA (J.BELMONTE)
OGI BERRI (AMAIA)
OGI BERRI (BASADI)
ARKUPE OKINDEGIA
AIZPURUA LIBURUDENDA
OLANO LIBURUDENDA
LOITZ LIBURUDENDA
ALAJANARIDENDA
NIKOL KAFETEGIA
INPERNUPE
ZALLA ERRETEGIA
FOTO GAR
ARROA BEHEA
NARRONDO TABERNA

ITZURUN
K
KIROLAK

Amaia plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA

Lehiaketa Goxoa



Zer parajetan dago
aterata argazki zahar
hau? Tokiaren edo
inguruaren izena
asmatzen duzuenon
artean TXAPARTEGI
GOZOTEGIAK
emandako
tarta zoragarri bat
zozketatuko dugu.
Parte hartzeko nahikoa
duzu erantzuna
Txapartegin bertan edota
gure buzoian uztea
abenduaren 20a baino
lehen. Zorte on!



Aurreko hilabeteko irabazleak **Arritxu Zubizarreta** eta **Maite Aramendi** izan dira, CHFÂE papertxo batean idatzi eta buzoira botatzeagatik **trufa tarta ederra** jaso zutenak. Urteak bete dituzte duela gutxi eta kuadrilan jateko asmoa zuten. On egingo zien, bai!

1997an
Baleike berriua!

Harpidetzak -97


1997 urte osoan gure aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, adi egon, oraintxe daukazu horretarako aukera eta. Onegiak garenez, aurten ere prezioak ez du igoyerarik izango, eta kanpoko harpidedunei gehixeago kobratzen jarraituko dugu, bidalketa gastuak ordaindu ahal izateko.

Harpidetza egiteko pasa zaitez Forondatik eta zure datuekin batera 1.000 pezeta uztea nahikoa da. Lehendik harpidedun bazara, diruarekin batera zure izena ematea nahikoa da, eta Forondara joan gabe Euskadiko Kutxako (laboraleko) kontu zenbaki honetan sartzea da beste aukera bat:
Baleike 0371041244



Harpidetza arrunta:
1.000 pezeta
Kanporakoak (postaz)
1.500 pezeta

Baleike internazionala!!



Egiozu harpidetza bat **KANPOAN** dagoen zure senitarteko edo adiskide horri. Eskertuko dizu!

Baleike, Euskal Herriko 30 herri baino gehiagotara bidaltzeaz gain, Oviedo, Pontevedra, Extremadura, Granada, Cartagena, Madril, Bartzelona, Huesca eta Tenerife aldera ere eramaten dugu, eta baita Zelanda Berria, EEBB, Eskozia, Ingalaterra eta Italiara ere.

Aldizkariarekin batera
urte guztirako
OPARIA